


STEE-EILAS

HORRELAKOAK GARA ETA
HORRELAKOXEAK NAHI DUGU IZAN





Horrelakoak gara eta horrelakoxeak nahi dugu izan

1. Gure historia ez da oraingoa. 30 urte daramagu lanean, gure sorrera 70eko hamarkadan eman baitzen. Urte haietan irakaskuntzako langileen mugimendua indartsua zen eta beste sektore batzuek bezala asanblada eta lantokietako ordezkarien bidez zegoen antolatuta. Mugimendu haietatik sortu zen **STEE-EILAS** sindikatua eta gaur egun Hego Euskal Herriko hezkuntza maila desberdinetako ikastetxeetako langileak biltzen ditu, irakasleak, hezkuntza laguntza eta zerbitzuetako langileak, Haur Eskoletatik Unibertsitateraino.
2. Euskal Eskola Publikoa aldarrikatzen jaio ginen eta borrokan dihardugu sare publikoa Euskal Herriko errealitatean oinarritutako hezkuntza sistemaren bizkarrezurra izan dadin. Sistema publiko indartsua eskatzen dugu, kualitatiboki nahiz kuantitatiboki. Kontrako haizeak nagusi badira ere, eredu neoliberal, klasista eta privatizatzaileen aldeko apustua egina dituztenak edo uniformetasun estatala bilatzen dutenak, publikotasuna eta euskaltasuna uztartzeko konpromisoarekin jarraitzen dugu, guretzat txanpon bereko bi aldeak baitira.
3. Eskola inklusiboa, guztion eskola defendatzen dugu, desberdintasun sozial eta muga pertsonalei (fisikoei, psikikoei...) aurre egiteko gai dena, berauek konpentsatzen saiatuz. Aniztasun honek gero eta zentzu handiagoa du, milaka baitira urtero Euskal Herrira etortzen diren etorkinak. Fenomeno hori, guretzat aberasgarria da bi aldeetarako. Horrexegatik, eskolak hainbat gauza bermatu behar du: aukera berdintasuna sustatzea jatorri ezberdintasunak alde batera utzita, arrazoi pertsonal edo sozialen ondorioz sortutako aldeak berdintzea segregazioa ekiditeko, elkartasuna sustatzea eta ez individualismoa, lankidetzeta eta talde-lana lehiakortasunaren aurrean, hezkidetzeta eta ez sexismoa eta, azken finean, pertsona kritikoen garapen integrala eta ez prestakuntza profesional hutsa.
4. Hezkuntzak kalitatezkoa ere behar du izan, gizarte modernoaren erronka berriei erantzuteko modukoa. Baliabideen falta salatzen dugu edonon, ezinbestekoa delako hezkuntza gastua handitzea, Administrazioaren inplikazio zuzenarekin. Horrela hezkuntza sistema integrala, laikoa, euskalduna, dohainik 0 urtetik hasita, kohezitzailea, solidarioa eta parte hartzearen aldekoa, euskal gizartearen pluralismoa berea egiten duena lortuko dugu.

5. Euskararen defentsa eta normalizazioaren aldeko mugimenduan gure inplikazioa handia izan eta izaten da, aldi berean, langileak euskaraz birziklatzea bultzatu dugularik. Eskolak ikasleriaren euskalduntzea bermatu behar duelakoan gaude, aukera berdintasuna eta kohesio sozialaren mesederako. Hizkuntza normalkuntza eta uztartze sozialerantz joan behar duen prozesu honetan malgutasunez ezarrirako murgiltze planen bidez, ereduaren sistema gainditzera iritsi behar dugu.
6. Sindikatu nazionala gara –**STEE-EILAS** hedaturik dago Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan– herri bezala gure etorkizuna erabakitze eskubidea aldarrikatzen duena, era demokratikoan eta kanpo esku-hartzerik gabe, Euskal Herrian ditugun errealitate ezberdinak kontuan hartuz. Inor eta ezer ezin liteke herri borondaterakoen galga izan. Hamai-ka kolorez osatutako gizarte bat aberasgarria izan liteke elkarren arteko oinarritzeko balore batzuk eta gutxiengoak zein gehiengoak onartutako joko arauak sortzeko gai bagina. Pertsona guztiak, ideia guztiak eta proiektu guztiak, zilegiak ez ezik, baliagarriak eta beharrezkoak ere baitira. Aniztasuna, ideologikoa zein

sentimendu nazionalari dagokiona, izan da gure nortasun ikurretako bat. Dogmetatik ihes eginez, guztien artean ditugun balioetan oinarritzen gara jarrera finkatzeko, elkarrizketa eta ikuspegi irekiz, posible baita desberdintasunak gainditzeko. Eta horixe izan daiteke euskal gizarteari egiten diogun ekarpenik garrantzitsuenak.

7. **STEE-EILAS**ek uste du gure herriak pairatzen duen gatazkak izaera politikoa duten oinarri historikoak dituela eta bereizkeria nahiz alde aurreko baldintzarik gabeko elkarrizketa dela konponbidea. Halaber, gure ustez, guztientzako giza eskubideen defentsak, indarkeriarekiko arbuioak eta euskal gizartearen borondate demokratikoarenganako begiruneak osatzen dute bakea eta normalizazio politikoa lortzeko gakoa. Euskal Herriko hiritarrok eskubidea dugu baita ere gure etorkizun politikoz erabakiak hartu eta berauek bermatuak izateko, benetako normalkuntza politikoa lortu nahi badugu.
8. Segitzen dugu aldarrikatzen bake eta normalizazio prozesuaren jarraipena, ondoratu nahi dutenen ahaleginek –edonorenak izanda ere– kezkatzen gaituzten arren. Eragile guztiak gaude beharturik –bakoitzak ahal dugun neurrian– euskal gizartea

**HORELAKOAK GARA
ETA HORELAKOXEAK NAHI DUGU IZAN**



HORRELAKOAK GARA ETA HORRELAKOXEAK NAHI DUGU IZAN

- ozenki eskatzen ari dena bideratzen saiatzeko. Hori dela eta behin betiko su etena aldarrika dezan eskatzen diogu ETARI, indarkeriaren bidea erabat baztertuz, gatazkaren konponbidea eta bakea lortzeko ezinbesteko baldintza baita. Baina beste aldetik, ezin dugu ahaztu une hauetan espainiar gobernuak duen erantzukizun historikoa ere, prozesua bukatutzat ez emateko, atzeraezinezkoa izan dadin. Euskal Herriko hiritarrok eskubidea dugu bakea eskuratu eta edozein motatako indarkeriarik gabeko egoera batean bizitzeko, non –bizitzari errespetutik hasita– inolako giza eskubideen urraketarik ez den emango, ez atentaturik, ez mehatxurik, ez torturarik, ez espetxe politika krudelik, ezta bazterketa politikorik edota jazarpen judizialik ere.
9. Irakaskuntzako sindikatua gara eta bertan lan egiten dugun langileen eskubideak eta lan baldintza egokiak defendatzen ditugu. Prekarietatearen kontra daramagun borrokak, enplegu egonkortasunaren aldekoak, lan banaketarako neurriek edota lan osasun eta berdintasunaren aldekoek argi adierazten dituzte gure lehen-tasanak. Baina ez dugu hor gelditu nahi eta gizarte honetako baztertuen ondoan kokatu nahi dugu geure

burua: oinarrizko soldata, aberastasinaren banaketa, etxebizitza duina, zaintzarako sistema, garapen jasangarria... Gizarte mugimenduekin batera (feminismoa, internazionalismoa, ekologismoa...) injustiziaren aurrean egiten diren salaketak nahiz mobilizazioetan hartzen dugu parte eta, aldi berean, berdintasun eta elkartasunaren aldeko proiektuekin bat egiten dugu. Globalizazioaren aurkako mugimenduak aldarrikatzen duen eraldakuntza sozialaren beharra ikusten dugu, uste baitugu “Beste mundu bat” posiblea dela.

10. Gure eredu sindikala asanblada mugimenduan dago oinarriturik eta erabakiak sobirotasun osoz hartzen ditugunez, ez gatoz bat sindikalismo agintzaile eta burokratikoarekin.

30 urte hauetan, **STEE-EILAS**en saiatu gara –eta horretan dihardugu– irakaskuntzako langileentzako elkargune izaten, non Euskal Herria justuagoa, solidarioagoa, demokratikoagoa eta libreagoaren bidean, desberdintasuna, injustizia eta Euskal Eskola Publikoaren aldeko kezkak, ilusioak, borrokarako grina, eztabaida, lana eta mobilizazioa konpartitu ahal diren.

Aurkeztuko gara

Nortzuk osatzen dugu sektore berri hau?

Hasteko esan behar dugu berri-berriak ez gabela. Kontua da azken hauteskundeak egin ostean, 2003an, fusio bat gauzatu zela, eta Lan-legepeko hainbat kolektibo hitzarmen bakar batean sartu gintuztela, sektore berri hori sortuz.

Beraz, Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen sektorea ondoko kolektibook osatzen dugu:

- Lan-legepeko Irakasleak (kontserbatorio, ikastetxe publikatu eta ikastola publikatuetaoak)
- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- Fisioterapeutak
- Logopedak
- Lan-terapeutak
- Material Egokitzalea eta Braille Transkriptoreak
- Tailer Maisuak
- Gizarte Laguntzaileak

Zeinu Hizkuntzako Itzultzaileak. Langile hauek hilabete batzuk baino ez daramate gurekin. Ongi etorriak!

Hauek izango dira lehen hauteskundeak irakasleak eta hezitzaile langileak hitzarmen batean elkartu garenetik; agian, Administrazioak pentsatuko zuen zerikusirik ez dugula, eta gure indarrak biltzeko ez ginela gai izango, fusioa bururatu zitzaionean.

Baina **STEE-EILAS**en ikasi dugu elkarrekin egoten eta aniztasun hori kudeatzen. Elkartzen gaituena lehenetsi, zubiak eraiki, akordio eta adostasun bideak joratu... guzti hori landu behar izan dugu lau urte hauetan, argi eta garbi baitauekagu bakarrik bide horretatik jo ezker izango gabela gauza sektorea batuko duten eta ekintza kolektiboak bultzatuko dituzten erreibindikazioak plazaratzeko.



Zerk batzen gaitu?

Bi gauza:

- Kolektibo txikitxoak garela, eta batzuetan ikastetxeetako gure lana, edo gure arazoak eta proposamenak, zaila egiten zaigu ezagutaraztea. **Baina elkarrekin indartsuagoak gara.**
- Euskal Eskola Publikoan egiten dugula lan, geure Eskola egunez egun pittin bat hobe izateko. **Beraz, helburu berbera dugu.**

Esan nahi dugunan

Aurreko bi puntuez apart, aldarrikapen batzuk bateratzen gaitu:

- **55 urte gorakoentzako** ikasleekin egoteko ordu murrizketa.
- **Langile ordezkoen lan baldintzak hobetzea:** Arlo honetan gure esfortzurik handiena egiten ari gara hezitzaile langile ordezkoek udako kibraketa lortzeko, 165 lanegun betez gero. Eta ez dugu amore emango hori lortu arte, Hezkuntzako ia sektore guztiek baitute, eta ezinbestekoa jotzen dugu gure langile ordezkoen prekarietatearekin amaitzeko.

Beste gai garrantzitsuak ere ahaztu gabe: urrunen dauden lanaldi murriztuko ordezkapenei uko egin ahal izatea, seme-alabak hiru urte bete arte ordezkapenei uko egin ahal izatea...

- **Soldata igoera:** azken urteotan galdutako erosahalmena berreskuratzea.
- **Gizarte fondoak:** Hezkuntzako sektore guztiek daukate, guk izan ezik. Besteek bezala, guk ere baditugu egoera ezohikoak gure bizitzan (adopzioak...).
- **Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak:**
 - Seme-alabak edo heldu ezgaituak medikuaren kontsultara laguntzeko baimena.
 - Amatasun, aitatasun eta bularra emateko lizentziak luzatu.
 - Seme-alabak zaintzeko eszedentzia (3 urte arte) heldu ezgaituak zaintzeko ere luzatzea.
- **Lan Osasuna:** Lehenik eta behin, sinatuta dagoena gauzatzea: urteko errebi-sioak, ikastetxeetako eta lanpostuetako ebaluazioak...

Horrez gain, gure lan baldintzak hobetzeko premiazkoak dira, gure sektorean eragin handia daukaten ahotsaren arazoak zein muskulu-eskeletikoak ekiditzeko edo tratatzeko laguntza teknikoak.

Eta, ez ditugunez kolektibo bakoitzak aldarrikatzen dituen gauzak ahaztu nahi, beraien berezitasunak aztertuko ditugu.



■ Irakasleak

Pasa den kurtsoan **erretiro partzialarekin** egon diren arazoan gainean egon gara, Administrazioari afektaturiko aurrejubilatuen egoera jakinarazten eta soluziorik onena topatzen kasu bakoitzean.

Eskatzen dugu lan-legepeko irakasle baten **lanpostua desagertzen bada, Hezkuntza Sailak beste lanpostu finko bat eskaintzea irakasle horri.**

Halaber, irakasle garen einean aldarrikapenez ez gara ahazten: **ratioen jaitsiera, soldata osagarri bajeuen igoera, zuzendaritza lana betetzeko ordu gehiago...**

■ Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

Pasa den kurtsoan, errekurtsu baten bidez, Eskola Kontseiluetako gure partaidetza debekatzen zuen agindua atzera egitea lortu genuen. Eta jarraitzen dugu **espezialisten eskoletako partaidetza gauzatzeko neurriak** eskatzen: Klaustroetako partaideak izateko, gainontzeko profesionalakiko koordinazio efektiboa lortzeko...

Urteko lanorduen jaitsiera ere aspalditik eskatzen dugu. Zortzi ordu baino gehiagoko jardunaldiekin amaitu nahi dugu.

Lan-baldintzen azterketa:

- Egin daitezela batzarrak berritzegunetan eta eskolako ordutegi barruan, askotan oraindik ez dira egiten.
- Bete daitezela hitzartutako koordinazio orduak, askotan bete gabe jarraitzen baitute.
- Hezkuntza Bereziko ikasleen garraio beharrak ez dezala espezialisten lan ordutegia baldintzatu.

Administrazioak esan zuen formazioa eskeiniko zuela (esfortzuak egiten eta zamak hartzen ikasteko), eta ez du bete.

■ Fisioterapeutak eta Lan Terapeutak

Gehienak ibiltariak direnez, **erreferentzia gune hurbil bat** behar dute partaidetza esparru bat izateko. Hori dela eta, **Berritzeguneetako partaide bihurtzea eskatzen dugu, klaustroetan ahotsa eta botoa izanda**. Beraien egutegiaz eta ordutegiaz, atenditu behar dituzten ikasle eta ikastetxe kopuruaz eztabaidatzeko aukerak izateko ere.

Horrez gain, bidaietan sortu daitezkeen gertaeren aurrean gutxiengoko babesza izatea ezinbestekoa dela uste dugu, horregatik: **istripuengatiko konpentsazioak eta aseguruak finkatzea** logikoa iruditzen zaigu.

Soldatari dagokiolarik, **maila bereko beste langile batzuekin parekatuak** izatea legezkoa da eta horrela aldarrikatzen dugu.

■ Logopedak, Transkriptoreak, Gizarte Lag., Tailer Maisua, Zeinu Hizkuntzako Itzultzaileak

Kolektibo hauen langileak gutxi izanik, jasan behar dituzte lan baldintza txarrak dira.

Kasu gehienetan ezin dute leku-aldatze lehiaketan parte hartu beraien kategoriako plaza gehiagorik ez baitaude.

Ez diete formakuntzarako ikastaroetan partehartzeko baimenik ematen, ordezko zerrendarik ez baitute.

Ez dute klaustroetan partehartzeko aukerarik, ez Berritzeguneetan ez ikastetxeetan, beraien LPZn ez baitira agertzen. Inposatzen diete lan egutegia...

Eta ibiltarien kasuetan, fisioak bezala daude: aseguruak ez, istripuengatiko konpentsaziorik ez...

Hori guztia kontuan izanda, argi dago nondik doazen gure errebindikazioak: **Administrazioari exijitzea kolektibo txikietako langileen lan baldintzak ez gutxiestea**.





Gure motibazioak

Lan-legepeko Irakasle eta Hezitzaileen sektoreak mota askotako langileak biltzen dituenek, ohituta gaude besteengana hurbiltzen gaituzten esparruak bilatzen.

Baina izan argi gauza bat:

Zure botoa ezezik, zure inplikazioa ere lortu nahi dugu.

STEE-EILAS en aldetik, gure lana eta gure konpromisoa eskaintzen dizugu, oinarriko jarduera lerro batzuei jarraituz.